

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

389/2026 Foru Agindua, uztailaren 31koa. Interes publikokotzat jotzea Zambranako Udalak udalerrri horretako lurzoru urbanizaezinean telekomunikazio sistema bat jartzeko sustatutako proiektua

2026ko martxoaren 24an, Foru Gobernu Kontseiluak erabakia hartu zuen, 2026ko ekitaldian Arabako Lurralde Historikoko kuadrillean eta udaletan turismo inbertsioei aurre egiteko laguntza lerroen deialdia onesteko.

Deialdia Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko aplikatzen diren oinarri orokor arautzaileek arautzen dute.

Xedea da Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei eta udalei laguntzea, lehiakortasuna hobetzeko turismo inbertsioak egin ditzaten.

Deialdi horren esparruan, Zambranako Udalak proiektu bat aurkeztu du, Berganzoko Uraren Ibilbideko aparkalekuan instalatu beharreko telekomunikazio sistema bat ezartzeko. Udalak memorian adierazten duenez, udalerrriak hainbat baliabide interesgarri ditu turista profil zehatz bat erakartzeko, 2020tik hazten ari dena pandemiaren ondorioz, hots, karabana, autokarabana edo furgonetaz bidaiatzen duena eta familia eta natura turismoaz gozatu nahi duena; ildo horretan, inguruak honako hauek ditu: Berganzoko Uraren Ibilbidea, Gazteluen Ibilbidea (Berganzo-Ocio-Zabalate), Donejakue Bidea eta Arabako mendi enblematikoak, hala nola Toloño eta Txulato.

Aparkaleku haren egungo azpiegitura hobetu nahi da, telekomunikazio sistema hori instalatu ondoren, ibilgailuentzako plazak erreserbatzeko aplikazio informatiko bat ezarri ahal izateko.

Obrak honako hauek izango dira: telefonia eroateko 90 metro linealeko kanalizazioa, 2TPC hodirekin; telekomunikazioak eroateko 6 metro linealeko zutabe eta idulkiko hargunea; eta H motako eta M motako beste bi kutxatila jartzea, dagoen sarearekin lotzeko. Proiektatutako instalazioa Zambranako udalerriko 3 poligonoko 1383. lurzatian eta 2 poligonoko 819. lurzatian kokatuko da, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuetan.

Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 euskal Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Udal arkitektoak egindako txostenean jasota dagoenez, Zambranako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen arabera, lurzorua 12. eremutzat jotzen da: "LU. Balio estrategiko handiko nekazaritza eremua" da, eta bertan baimenduta daude onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Landa eremuan lekututa izatea, zientziari, topografiari, geografiari edo irakaskuntzari lotutako arrazoiengatik zein antzeko beste edozein arrazoiengatik, hautaturiko lursailean nahitaez lotuta egon behar duten jarduerak izateagatik, edo lehen mailako baliabideei zerbitzua emateagatik.
- Hirigintza Plangintzaren Araudiaren 76.3 a) artikuluan azaltzen diren kasuetako batean ez badaude.

- Ez dute isuririk sortu behar (edo dagokion arroaren organoaren baimena aurkeztu behar dute), edo zuzenean lotu behar dituzte estolderiaren sare orokorretara.
- Ezin dute ez higidurarik, ez lurren kalitate galerarik eragin.
- Ezin dira akuiferoak babestearekin bateraezinak izan.

Txostenak jarraitzen du esanez obrak A-3126 errepidearen eragin zonan eta Inglares ibaiaren zaintza eremuan daudela; beraz, Arabako Foru Aldundiak eman beharreko interes publikoko deklarazioaz gain, sustatzaileak Errepideen Foru Zerbitzuaren baimena lortu beharko du, bai eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren baimena ere, obrak egiteko.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskumena du aztergai den espedientea ebazteko, bat etorritz Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 lege-gintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuan xedatutakoarekin.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzoruan, «salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilerak batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira».

Bat etorritz 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeiguneko jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Bigarrena. Ekainaren 18ko 307/2026 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespina ematea eta jendaurrean ipintzeko 20 eguneko epea irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena 72. zenbakian egin zen, 2026ko ekainaren 26an. Horretarako emandako epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Hirugarrena. Proiektuaren interes publikoari dagokionez, Telekomunikazioei buruzko ekainaren 28ko 11/2022 Lege Orokorra aplikatu behar da. Haren 1. artikulua honako hau zehazten du: "Lege honen xedea telekomunikazioak arautzea da, eta horren barruan sartzen dira komunikazio elektronikoen sareak instalatzea eta ustiatzea, komunikazio elektronikoen zerbitzuak ematea, horiei lotutako baliabideak eta zerbitzuak, ekipo erradioelektrikoak eta telekomunikazioko ekipo terminalak..."

Lege horren 2. artikuluan ezartzen denez, "Telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak dira eta lehia askearen araubidean ematen dira". Bestalde, 3. artikuluan arabera, lege horren helburu eta printzipioen artean hauek daude:

"[...]"

c) Interes orokorreko helburua lortzearen, komunikazio elektronikoen sareak hedatzea eta zerbitzuak ematea sustatzea, konektagarritasuna, oso gaitasun handiko saretarako sarbidea (sare finkoak, mugikorak eta hari gabekoak barne) eta muturretik muturrerako elkarrengarritasuna sustatuz, berdintasun baldintzetan eta diskriminaziorik gabe.

d) Sareen hedapenean eta komunikazio zerbitzuen prestazioan berrikuntza bultzatzea, zerbitzu unibertsala bermatzeko eta Interneterako sarbidean eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) dagoen desberdintasuna murrizteko, arreta berezia jarritz Interneterako sarbide funtzionala hobetzearekin lotutako herritarrentzako sareen eta zerbitzuen hedapenean”

Lege horren III. tituluak zerbitzu publikoko betebeharrak eta izaera publikoko eskubide eta betebeharrak aipatzen ditu, sareen horniduran eta komunikazio elektronikoaren zerbitzuak ematean, eta 37. artikulua honako hau zehazten du:

«1. Zerbitzu unibertsaltzat hartzen da kontsumitzaile guztientzat bermatzen den zerbitzu multzo definitua, edozein dela ere haien kokapen geografikoa [...].

Hauek dira zerbitzu unibertsalak [...]:

a) Banda zabaleko Interneterako sarbide egoki eta eskuragarriko zerbitzua, kokapen finko baten azpiko konexio baten bidez [...].

b) Ahots komunikazioko zerbitzuak, kokapen finko baten azpiko konexio baten bidez”

Ilido horretan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikuluan h) eta ñ) letren arabera, udalek beren udal mugarteetan dituzten eskumen propioen artean sartzen da bai intereseko turismo jardura sustatzea, bai herritarrek informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilera efiziente eta jasangarrian parte hartzea sustatzea; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ere hala adierazten du, 17.1.22) eta 30) artikuluetan udalerriek esleitzen baitizkie eskumen horiek.

Bestalde, azpiegituraren berezko ezaugarriengatik kokatu beharra dago landa eremuan.

Horregatik, dauzkadan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, interes publikokotzat deklaratzeko Zambranako Udalak sustatutako proiektua, udalerri horretako 2. eta 3. poligonoetako 1383 eta 819. lurzatiaren telekomunikazio-sistema bat ezartzeko, hurrenez hurren, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuak.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du udala salbuesten proiektua egitea onesten edo baimentzen duen erabakia hartzeko betebeharririk; erabaki horrek hirigintza lizentziaren baldintza eta ondorio berberak izango ditu, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207.6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, bi hilabeteko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki jotzen duten beste edozein errekurtsu ere aurkeztu dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 31

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA